



# Arantzako Udala

## UDAL INFORMAZIOA I 2020KO MARTXOA

### KORONABIRUSA

Lerro hauen bitartez, COVID-19a koronabirusa dela eta, Arantzako Udalak neurri batzuk hartu behar izan dituela jakinarazi nahi dizuegu. Beti ere, Nafarroako Gobernutik emandako aginduak direla zehaztu nahi dugu.

Hala, Nafarroako Gobernuak errandakoarekin bat eginez, **udal eraikin guztiak itxi** egingen dira:

- Eskola
- Frontoia
- Liburutegia
- Parkea
- Herriko Etxea

Gutienez, 15 egunez itxita segituko dute.

Bertzalde, **eskolako jarduerak eta eskolaz kanpoko jarduerak ere bertan behera** geldituko dira.

Egoera arintze aldera, Herriko Etxean langile bat egonen da deiak erantzuteko prest. Udala laguntzeko prest dago eta horretarako **behar-beharrezkoak diren eskaerak** kontuan hartuko ditu. Laguntza behar izanez gero, 948 63 40 05 telefonora deitu edo [udala@arantza.eus](mailto:udala@arantza.eus) helbidera idatz dezakezue.

Argi utzi nahi dugu momentu honetan osasuna babesteak izan behar duela lehentasuna. Hortaz, elkar zaindu dezagun.

Bide batez, Udaletik lasaitasunerako deia egin nahi dizuegu eta gure esku dagoena egin behar dugu mediku-etxeek eta ospitaleek gainezka egin ez dezaten. Prebentzio neurriei lehentasuna emateak duen garrantziaz ere ohartarazi nahi dizuegu.

Arantzan, 2020ko martxoaren 14an